

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



MALTZURRENA NOR?

Ienea ta tximiñoia lagunak ziran. Sarritan alkartzen ziran euren jazoerak alkarrari esateko.

Bietatik zein zan maltzurrena eztabaidatzen asi ziran eta eritxi batera etortzen ez ziralako, gizon baten eritxia eskatu eben.

Eldu ziran gizonaren txabolara eta maitekiro artu ebezan eta bakoitxak kalabaza bete esne eratsi-barria aurkitu eben.

Tximinoiak bere kontura artu eban gizona eta esan eutson:

—Adiskide! Eskerrik asko ondo artu gozuzalako, esnea emon dauskuzulako eta danagaitik. Zugana etorri gara biotatik maltzurrena zein dan jakiteko. Entzun ondo! Ieneari errazoia emoten

ba'dautsazu ni eta nire lagunak zure uretzara etorriko gara eta ura loituko dogu etazuk zure beiak ezin edan izango dozue.

Gizonak ez eban erantzun.

Gerotxuago ieneak deitu eutson gizonari txabolatik kanpora eta esan eutson:

Ez dakik ienean zer esan dautzun, baiña ona etorri gara biotatik zein dan maltzurragoa jakiteko. Argi dago, neuri emon bear daustazula errazoia. Ori esaten ez ba'dozu, Jainkoak baiño ez daki zer jazoko jatzun. Gabean lagunakaz etorriko naz zure kortan nastea aterateko eta zure abereak ilteko.

Oneri be ez eutson erantzun gizonak. Txabolara sartu eta gauza asko aitatu ebazan denpora-pasagarri, eziketa onak mundu giztiko lurraldeetan eskatzen dauan lez.

Geroago tximiñoiak eta ieneak auxe esan eben:

—Gizona! Zu zara gure epaille! Esan zein dan biotatik maltzurrena!

Gizona apur baten isillik egon zan eta gero esan eban:

—Urreratu zaitzeze biok nigana, tximiñoia eskuiñera eta ienea ezkerrera. Nik ezpateagaz joten dodana da maltzurrena. Baiña ikutua dana arin joan bearko da eta barrero etxera etorri pozik.

Gizonak biak batera jo ebazan ezpateagaz eta biak joan ziran arin, agurrik be egin bagerik.

Orrelan ura eta abereak ondo atera ebazan gizonak eta bera dala maltzurrena agertu eban.

† OLAZAR'tar Martin'ek